

# **Fonetika eta fonologia**

## **3. GAIA: Txandakatzeak**

*Euskal Ikasketak lizentzia, 1. urtea*  
2021-22 ikasturtea

# Egitura

1. Txandakatzeak bokaletan
2. Txandakatzeak kontsonanteetan

# Txandakatzeak: Sarrera (I)

- Txandakatzea: Ahoskera desberdintasuna hizkuntzaren gainerako osagaien arabera (gramatikalki, hiztegian) loturik dauden hitzetan.
  - Bokalikoa: *seme / semia*      *alaba / alabea*
  - Kontsonantikoa: *zezen / xexen*      *zori / xori*
- Txandakatzeek ordezkatzek proposatzeko bide ematen digute.
- Ordezkatzek txandakatzeak eragiten dituzte: /s̺/ → [ʃ].
- Txandakatze fonetikoak azaleko gertaerak dira: [s̺] ~ [ʃ].

# Txandakatzeak: Sarrera (II)

- Nola jakin txandakatze harremanean dauden bi hotsetarik zein den jatorrizkoa?
  - Motibazio fonetikoa bilatu behar dugu, ingurune foniko jakin baten arabera gertatzen ote den txandakatze hori.
- Asimilazioa → hots bat inguruneari egokitzea, horrekiko antza areagotuz.
- Adibidez:
  - /n/ → /ɲ/ /i\_ *nor vs. iñor; inor > iñor.*
  - /s̺/ → /s̺/ /\_...s̺,t̺ *zin (+h)etsi vs. sinetsi; zinetsi > sinetsi.*

# Txandakatzeak: Sarrera (III)

Barne-irudikatzea    bihurtzen da    Azaleko forma    non    Testuingurua

**/n/** → **[n]** **/i\_**

- Txandakatzeetan erabiltzen den notazioa:
  - /: non; \_: aldatzen den hotsa non doan.
  - Letra larriak: S (txistukari igurzkari bat), tS (afrikatu bat), T (herskari (ahoskabe) bat), D (herskari ahostun bat), N (sudurkari bat), V (bokala), C (kontsonantea), etab.

# Beheko bokalaren asimilazioa (I)

## *(low vowel assimilation)*

Txandakatzea: /a/ ~ /e/

- Deskribapena: /a/ → [e] /i, u(C)\_
- Asimilazioa: /a/ [e] gisa ahoskatzen da, aitzinetik bokal itxi (altu) bat badu.
- Bizkaiera, gipuzkera eta goi-nafarreran.
- Adibideak:
  - Hitz barreanean: *indar* ~ *inder*; *mila* ~ *mile*; *izan* ~ *izen*; *sukalde* ~ *sukelde*...
  - Deklinabidean: *lagun* ~ *lagune*; *mutil* ~ *mutile*...
  - Bat edo aditz laguntzailearekin: *lagun bat* ~ *lagun bet*; *etorri da* ~ *etorri de*...

## Beheko bokalaren asimilazioa (II) (*low vowel assimilation*)

- Hitz-elkarketan / zenbait atzizkirekin ez:  
*\*\*buru-hendi; \*\*bigerren; \*\*baserriter.*
- Ondarroan -a bukaera absolutuan izan behar da: *lagune baina lagunak.*
- /a/ > /e/, baina Azpeitia eta Azkoitian beste bokal bat sortzen da.

# Bokal artekoen igotzea (*mid vowel raising*)

Txandakatzea: /e/ ~ /i/    /o/ ~ /u/

- Deskribapena: /e/ → [i] eta /o/ → [u] / \_V
- /a/ [e] gisa ahoskatzen da, eta /o/ [u] gisa ahoskatzen da ondotik bokal bat dutenean (adibidez, deklinabideko -a).
- Adibideak:
  - Deklinabidearekin: *etxe* ~ *etxia*; *kale* ~ *kalia*; *baso* ~ *basua*; *itsaso* ~ *itsasua*
  - Hitz barreanean batzuetan: *bear* ~ *biar*; *beor* ~ *bior*



# Kontsonante epentesiak: irristari/kontsonante txertatzeak bokal altuen ondotik

Txandakatzea: /∅/ ~ /j/, /t̪/, /ʃ/, /ʒ/, /w/, /b/

- Deskribapena: /∅/ → [j], [ɟ], [t̪], [ʃ], [ʒ] (hizkeraren arabera) /i\_V  
/∅/ → [w], [β], [b] (hizkeraren arabera) /u\_V
- Bokal itxi bat (/i/, /u/) bigarren bokal batek jarraitzen duenean, kontsonante bat gehitzen da bien artean.
- Adibideak:
  - Deklinabidean /i/ ondotik: *mendia* ~ *mendiya*, *mendidxa*, *mendixa...*
  - Deklinabidean /u/ ondotik: *burua* ~ *buruba* (Gip. eta Naf.); *sua* ~ *suya* (Etxepare 1545).
  - Hitz barrenetan ere: *biar* ~ *biyar*, *bidxar*, *bixar...*

# Bokalen igotzea eta erabateko asimilazioa (I)

Txandakatzea: /a/ ~ /e/

- Azalpena: /a/ → [e] /\_a (absolutibo singularrean) (mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretan).
- Erro amaierako /a/ bokal irekia [e] gisa ahoskatzen da absolutibo singularreko forman, izenaren erroa eta artikulua ongi bereizteko (disimilazioa).
- Adibideak:
  - izena + artikulua = *alaba-a* ~ *alabea*, *fabrika-a* ~ *fabrikea*...

# Bokalen igotzea eta erabateko asimilazioa (II)

Elkarren ondoko txandakatzeak; adibideak:

- Disimilazioa /aa/ > /ea/ (beheko bokalaren igaitea).
- Disimilazioa /ea/ > /ia/ (bokal erdikoaren igaitea) (Lekeitio, Eibar..).
- Beheko bokalaren asimilazioa: /ia/ > /ie/ (Bermeo, Gernika, Azkoitia): *alabie, alkondarie, neskie...*
- Bokal luzeak sortu: /ie/ > /ii/ (jatorrian -a, edo -e: *alaba, ume*) *umiin ama...*
- Erabateko asimilazioa: *neskie > neskii > neski* (Ondarroa), *neskea > neskee > neske* (Getxo).

# Desbiribiltzea (*unrounding*)

Txandakatzea: /y/ ~ /i/

- Deskribapena: /y/ → [i] /\_a,e (zubereraz)
- Adibideak:
  - Determinatzailearen aurretik: *lekhü* ~ *lekhia*, *lekhiek*, *mündü* ~ *mündia*, etab.
  - Erronkarieraz: *lekiua*, *mundiua*, etab.

# Bokalen asimilazio erregresiboa (*regressive vowel assimilation*)

Txandakatzea: /i/ ~ /y/ (zubereraz) eta /i/ ~ /u/ (erronkarieraz)

- Deskribapena: /i/ → /y/ /\_Cy (zubereraz)  
/i/ → /u/ /\_Cu (erronkarieraz)
- Asimilazio erregresiboa, gibelera.
- Adibideak:
  - Zubereraz: *ithürri* ~ *üthürri*, *iñhürri* ~ *üñhürri*...
  - Erronkarieraz: *iturri* ~ *uturri*, *iñurri* ~ *uñurri*...

# Bokal galerak: sinkopa eta aferesiak (*syncope and apheresis*)

- Bortzirietan, Malerrekan (Nafarroa mend.), azenturik gabeko bokalak laburtzen dira. Arantzako hizkeran silaba azentuaren ondotikako silabako bokalak erortzen dira ondotik kontsonante bat badute: *básotik > bástik (verre) (vs. basótik), eskólatik > eskóltik, elíza ~ elíztik...*
- Kontsonante talde eta koda berriak sortu dira: *ateetatik > atét.tik (vs. atétik), eskopeta > eskop.ta, berriketan > berrik.tan...*
  - Koda konplexu gehiago: *(h)an.ketan > ank.tan, ekar.tzeko > kártz.ko...*
- Erronkarieraz eta zaraitzueraz ere: *tipula > tupla, tempora > tempra...*
  - + hastapeneko bokalak erori: *maztea, karri* (Baigorriin eta Nafarroan).

# Egitura

1. Txandakatzeak bokaletan
2. Txandakatzeak kontsonanteetan

# Sabaikaritze baldintzatua

Txandakatzea: /l/ ~ /ʎ/; /n/ ~ /ɲ/; /t/ ~ /t͡ʃ/; /s̺, s̻/ ~ /ʃ/

- Deskribapena: /l/, /n/, /t/ → [ʎ], [ɲ], [t͡ʃ] /i,j\_(V)
- Kontsonante zenbait sabaikaritzen dira aitzinetik bokal sabaikari bat baldin badute (/i/, [j] euskararen kasuan).
- Adibideak:
  - *langile > langille, mutila > mutilla; ditut > dittut; mina > miña...*



# Sabaikaritze afektiboa (I)

Txandakatzea: /l/ ~ /ʎ/; /n/ ~ /ɲ/; /t/ ~ /t͡ʃ/; /s̺, s̻/ ~ /ʃ/

- Kontuz! Txandakatze bera testuinguru fonologikorik gabe gerta daiteke euskaraz “txikigarri” bezala.
  - *xuxen, xagu, xahar, xexen, xoxo, xoro.*
- Forma afektiboa lexikalizatu, eta arrunt bihurtu:
  - *xerri, xakur (zerri, zakur: handi edo irain gisa).*
- Euskalki zenbaitetan /t, d/ eta /l, r/ ere:
  - *tanta ~ ttantta, kutun ~ kuttun, eder ~ edder.*
  - *lagun ~ llagun, labor ~ llabor, polita ~ pollita, bero ~ bello, hori ~ holli.*

# Sabaikaritze afektiboa (II)

- Oro har, sabaikaritze baldintzatura duten euskalkiek sabaikaritze afektiborik ez.
  - *Gixona* bezalakoak baldintzatuak dira, ez txikigarriak.
- Alderantziz, sabaikaritze baldintzaturik ez dutenek sabaikaritze afektiboa biziki garatua dute.
- Haurrei egiten zaien hizkera: *zoazi, errakozu, zatoz...*  
> *xaxi, errakoxu, xato...*

# Silaben arteko kontsonante batuketak (I)

- Herskari + herskari ezin. Hitz barnean, baita mintzatzean hitzak elkartzean: *gizonak datoz* [giʃõnãtatoʃ], *ez dakit ba* [eʃtakipa].
- Herskari + txistukari: /t/ + /ʃ, ʒ/ > /tʃ/: *bait zira* [bajtʃira].
  - Baina aldiz /k, p/ + /ʃ/ > /T.S/: *lagunak ziren* [lã.ɣũ.nãk.ʃi.rẽn].
  - Ekialdean /T/ + /ʃ/ > /tʃ/ (*absoluto > atsoluto, exemple > etsenplu*), baita hitzen artean ere (*lagunak ziren > [laɣũnãtʃirẽn]*).

# Silaben arteko kontsonante batuketak (II)

Txandakatzea:  $/\widehat{t\underset{\square}{s}}/ \sim /s_{\square}/$

- Deskribapena:  $/\widehat{t\underset{\square}{s}}/ \rightarrow [s_{\square}] /\_C$
- Afrikatuak igurzkari bihurtzen dira kontsonante aurrean (desafrikatzea).
- Adibideak:
  - *hitz* ~ *hiztegi*, *hizlari*; *hortz* ~ *horzkari*;  
*mendirantz* ~ *mendiranzko*...

# Ahostuntasun/ahoskabetasun asimilazioak (I)

Txandakatzea: /d/ ~ /t/; /g/ ~ /k/; /b/ ~ /p/

- Deskribapena: /D/ → [T] / S\_
- Herskari ahostun bat ahoskabe gisa txistukari ondotik.
  - Ahoskabetzea / ahoskabetasun asimilazioa.
- Adibideak:
  - *gain ~ kain (Berrogain ~ Azkaine); doi ~ toi (Ihidoi ~ Ameztoi); di ~ ti (pagadi ~ harizti).*
  - *gara ~ kara (gara ~ ezgara); bada ~ pada (bada ~ ezpada).*

# Ahostuntasun/ahoskabetasun asimilazioak (II)

Txandakatzea: /t/ ~ /d/; /k/ ~ /g/

- Deskribapena: /t, k/ → [d, g] /n, l\_
  - Ahostuntzea / ‘ahostuntasun’ asimilazioa.
- Adibideak:
  - *tu ~ du (nekatu ~ galdu); ta ~ da (ikusita ~ eginda); ko ~ go (ikusiko ~ jango); tik ~ dik (Bidarraitik ~ Irundik); tar ~ dar (Bilbotar ~ Baztandar)...*

# Ahostuntasun/ahoskabetasun asimilazioak (III)

Txandakatzea: /s̺/ ~ [z̺]; /s̻/ ~ [z̻]

- Deskribapena: /s̺, s̻/ → [z̺, z̻] /\_b,d,g,n,m,l...
  - Ahostuntzea / ‘ahostuntasun’ asimilazioa.
- Adibideak:
  - *desgogo, ezberdin, esne, asmatu, hizlari...*
- Heskari ahostun aurrean, batez ere aurrizkiekin.

# Ozenen ondoko txistukarien afrikatzea

Txandakatzea: /s̺/ ~ [t̺s̺]; /ṣ/ ~ [ṭṣ]

- Deskribapena: /s̺, ṣ/ → [t̺s̺, ṭṣ] /n,l,r\_
- Ozen baten ostean txistukariak afrikatu bihurtzen dira (afrikatzea).
- Adibideak: *zen* ~ *tzen* (*joan zen* → *joantzen*); *zara* ~ *tzara* (*hil zara* → *hiltzara*); *zuen* ~ *tzuen* (*hor zuen* → *hortzuen*).



# Txistukari + afrikatu taldeen sinplifikatzea

Txandakatzea:  $/\widehat{t\underset{\square}{s}}/ \sim /t/$

- Deskribapena:  $/\widehat{t\underset{\square}{s}}/ \rightarrow [t] / S\_$
- Txistukari ondoko afrikatuak herskari egiten dira.
- Adibideak: *tzen* ~ *ten* (*etortzen* ~ *hesten*); *tzaile* ~ *taile* (*antolatzaile* ~ *moztaile*).

# Bokal arteko dardarkari bakunaren galera

Txandakatzea: /r/ ~ /∅/

- Deskribapena: /r/ → [∅] /V\_V
- Bokal arteko dardarkari bakunaren galera (lenizioa).
- Adibideak: *zira* ~ *zia*; *zure* ~ *zue*; *hura* ~ *hua*.

# Bokal arteko herskari ahostunen lenizio eta galera

Txandakatzea: /d/ ~ /r/ ~ /∅/; /g, b/ ~ /∅/

- Deskribapena: /b/, /d/, /g/ → [∅] /V\_V
- Bokal arteko herskari ahostunen ahultzea (lenizioa).
- Adibideak: *edan* ~ *eran*; *ederki* ~ *eerki*; *egarri* ~ *earri*.